

## ESKOLA KIROLA

### IKUSLEENTZAKO DEKALOGOA

- 1. Den-denak animatu.** Parte hartzaile guzti-guztien ahaleginak eta jokaldi onak txalokatu. Emaizta ez da garrantzitsuena.
- 2. Erabateko begirunea erakutsi.** Erakutsi begirunea diezula kirol jardueran parte hartzen dutenei (ikasleak, entrenatzaileak, arbitroak eta ikusleak). Denak dira ezinbestekoak.
- 3. Ez egin irainik, ezta errietaryk ere.** Ez egin errieta akatsak egiteagatik. Ikasten ari dira! Animatzeko hitzak erabili; horrelaxe motibatuko dituzu!
- 4. Beren kasa gozatzen utzi.** Nahiz eta zuk asko jakin, ez ibili etengabe esaten zer egin behar duten. Utzi aske gozatzen eta erabaki propioak hartzen!
- 5. Jolasten ari dira, eta ondo pasatzen ere bai.** Ikasleak ez dabilta jolasean ikusleak entretenitzeko, ezta jokoan lehenak izateko ere; kirolaren bidez, dibertitu egiten dira, eta hezi ere bai. Ez ahaztu hori inoiz!
- 6. Emaizta ez da garrantzitsuena.** Kirol jarduera bukatutakoan, garrantzitsuena baloratu; hau da, norbera eta taldea hobetu diren edo ez, eta ez ateratako emaitza.
- 7. Eredu zara zure seme-alabentzat.** Kontuan hartu zure jokabidea eredu delat zure seme-alabentzat, eta, batez ere, haiena delat benetako protagonismoa.
- 8. Arbitroa errespetatu.** Arbitroaren erabakiak errespetatu, eta kirolari guztiak gauza bera egiten eta onartutako arautegia errespetatzen bultzatu.
- 9. Ez justifikatu inoiz indarkeria.** Edozein motatako indarkeria eta jokabide okerrak gaitzetsi, bai ikusleenak, bai parte hartzaileenak.
- 10. Goiburua: "joko garbia".** Beti sustatu ikusleen artean arau hauek erabiltzea, eta, horrela, kirol jarduera denontzako onuragarria izatea lortuko dugu.